ALBOAN

ONG promovida por los Jesuitas - Jesuitek sortu era bultzatutako GKE

www.alboan.org

# MEMORIA 2016





# CELEBRACIONES Y DESAFIOS

Sin duda, un buen tweet para expresar lo ocurrido en 2016 podría ser: "año de celebraciones con muchos frutos e importantes desafíos que nos lanzan al futuro".

Si algo ha caracterizado especialmente este año ha sido la celebración de nuestro 20º Aniversario. Miles de personas, grupos e instituciones respondieron a nuestra invitación para festejar la vida y la historia de ALBOAN. Un aniversario que ha confirmado la pertinencia de una entidad como la nuestra, y nos consolida como organización de cooperación internacional de la Compañía de Jesús arraigada en Euskadi y Navarra.

Los frutos han sido muchos. ALBOAN y su familia han crecido considerablemente. Hemos llegado a 6.200 personas con nuestras formaciones, 200 centros educativos han empleado nuestros materiales educativos (a través del compromiso de más de 1.100 educadores y educadoras) y hemos apoyado 209 proyectos de nuestras organizaciones aliadas en el Sur. Nuestra familia ALBOAN se ha incrementado con 108 empresas colaboradoras, 6.500 personas socias y donantes, y 36 grupos juveniles. Nuestro volumen de actividad continúa creciendo y asciende a 9,5M€ recuperándonos, en parte, de la crisis de los años pasados. Por último nuestra presencia en redes sociales se ha duplicado (estamos cerca de los 20.000 seguidores en facebook y twitter) y también el número de visitas a la web renovada (alcanzamos las 400.000 visitas por trimestre).

Nuestra campaña de "Tecnología Libre de Conflicto" ha contado con dos apoyos fundamentales que nos han permitido ampliar su visibilidad en nuestro entorno. Por un lado, la emisión del programa "Salvados" que abordó la problemática de las mujeres congoleñas que sufren la violencia sexual en un contexto de expoliación de los recursos naturales en el país. En segundo lugar, el apoyo decidido de la

cantante Amparo Sánchez que, tras conocer personalmente el trabajo de nuestras organizaciones aliadas en RD Congo decidió componer una canción titulada “Mama África”. Estos apoyos, junto con un amplio respaldo institucional, nos han permitido incrementar considerablemente la visibilidad de esta situación que finalmente ha dado lugar a la creación de una legislación europea para controlar, en parte, la trazabilidad de los minerales procedentes de zonas en conflicto que emplean las empresas europeas.

Por otro lado, nuestra propuesta educativa se ha visto reforzada con las temáticas de interculturalidad y coeducación que nos permiten abordar dos cuestiones relevantes para la construcción de una ciudadanía global, activa y responsable: la hospitalidad y la equidad de género.

Los frutos logrados nos animan e impulsan a seguir trabajando por la vida digna pero, al mismo tiempo nos plantean desafíos importantes para el futuro. Por un lado, el crecimiento de nuestro presupuesto no ha sido suficiente para mantener los proyectos del Sur que deseamos apoyar, especialmente en América Latina ¿de qué forma podemos visibilizar las necesidades de las personas latinoamericanas que luchan por salir adelante? ¿y las de aquellas que cruzan México jugándose la vida y huyendo de la violencia que arrasa los países centroamericanos?

En segundo lugar, el alto nivel de adhesión alcanzado en 2016 nos compromete para mantener nuestro trabajo riguroso y nuestro aporte de valor a la construcción de una ciudadanía global activa y con mirada crítica.

Este trabajo no hubiera sido posible sin el compromiso permanente y generoso del equipo de ALBOAN formado por 200 personas voluntarias y 44 contratadas. ¡En familia llegamos lejos!

¡Muchas gracias!

# ¿DONDÉ ESTAMOS?

**Bilbao**
Padre Lojendio, 2 - 2
48008
Tel: 944 151 135

**Vitoria - Gasteiz**
Monseñor Estenaga, 1
01002
Tel: 945 202 676

**Pamplona**
**Iruñea**
Avenida Barañain, 2
31011
Tel: 948 231 302

**Donostia**
**San Sebastián**
Andía, 3
20004
Tel: 943 275 173

www.alboan.org
alboan@alboan.org
facebook.com/alboan
@ALBOANongd

diseño by muxotepotolobat



# ACCIÓN PÚBLICA Y PARTICIPACIÓN




## EDUCACIÓN FORMAL

200 centros educativos se han sumado a alguna de nuestras propuestas educativas con diferentes grados de implicación. 1.142 educadoras/es y educadores utilizan alguna de nuestras propuestas educativas.

Junto a los colegios jesuitas de Durango y Donostia, se han elaborado materiales para la propuesta de Educación intercultural basada en la metodología por proyectos para Secundaria y Bachillerato, fortaleciendo nuestra línea de trabajo en innovación educativa. Hemos dado inicio a una nueva línea de trabajo en el ámbito de la coeducación. En 7 centros se ha puesto en marcha un proceso de autodiagnóstico que desembocará en planes de acción, que promoverán iniciativas de educación para la igualdad.

En Abril se celebró el encuentro de la red de educadores y educadoras por la solidaridad EDUKALBOAN, con más de 50 participantes comprometidos con el cambio social.

Junto a Entreculturas, Intered y Oxfam Intermón, impulsamos el Movimiento por la Educación Transformadora y la Ciudadanía Global, con el que se han implicado 48 centros educativos. Y en Noviembre tuvo lugar el I Encuentro del Movimiento a nivel estatal con la presencia de una numerosa delegación de la red EDUKALBOAN.

Hemos impartido la asignatura de Educación para el Desarrollo Sostenible en el grado de Educación Social de la Universidad de Deusto en Bilbao.

"La educación nos protege. Protejamos su financiación" fue el lema de la edición anual de la Campaña Mundial por la



Educación. ALBOAN ha movilizado en Euskadi y Navarra a más de 50 centros y varios grupos de educación no formal. Además prosigue el intercambio entre centros de Navarra y centros de Fe y Alegría Nicaragua.

Reeditamos la experiencia Ankur. Se trata de una propuesta pedagógica, en clave Fe y Justicia, dirigida a alumnado de secundaria que propone una experiencia de inmersión en la realidad de las comunidades dalit y adivasi de la India. El programa se lleva a cabo en el Santuario de Javier en colaboración con la comunidad jesuita y el sector educación de la Compañía de Jesús. Entre septiembre 2016 y febrero 2017 han participado 972 jóvenes y 58 educadores y educadoras provenientes de 18 centros.



## EDUCACIÓN NO FORMAL

Seguimos apostando por experiencias de Voluntariado Internacional. 17 personas han participado en programas de voluntariado internacional en el Sur a través de los programas VOLPA y Elkartopatzen.

En abril celebramos en Orduña, Bizkaia, el tercer Encuentro de la Red de Jóvenes ALBOAN por la solidaridad en torno a la campaña “Tecnología Libre de Conflicto”. Participaron 61 chicas y chicos y contamos con la presencia de 4 jóvenes hondureños que participan en grupos locales en defensa del territorio.

Dentro del marco de formación en solidaridad “Munduko Txokoa” en País Vasco y “Una Ventana al mundo” en Pamplona hemos realizado un total de 13 actividades a las que han asistido un total de 567 personas. Además hemos ofrecido formación a cerca de 6.200 personas en acciones formativas de diverso tipo: cursos (online y presenciales), talleres, formaciones específicas a profesorado y grupos colaboradores.

Como parte de la organización de Comercio Justo Kidenda acompañamos a grupos de Donostia y Pamplona, y participamos de la tienda de comercio justo Bide Bidean en Vitoria-Gasteiz.

Además, hemos organizado seminarios internacionales de alcance sobre distintas temáticas: Alternativas Económicas; Más allá de las Fronteras (Interculturalidad); La desigualdad a Debate; Recursos Naturales y Desplazamiento Forzoso; Periodismo Comprometido; Mujeres, Minería y Conflicto.

Nuestras exposiciones, un total de 29, sobre población refugiada y migrante, India, Tecnología Libre de Conflicto y voluntariado han tenido una gran acogida.



# CAMPAÑAS, MOVILIZACIONES Y COMUNICACIÓN EDUCADORA

Vivimos una de las mayores crisis de población refugiada y migrante de la historia. En todo el mundo 60 millones de personas se ven obligadas a abandonar sus hogares. A Europa también llegan oleadas masivas a través del Mediterráneo. ALBOAN, como parte del Sector Social de la Compañía de Jesús, se ha involucrado en la puesta en marcha de la campaña HOSPITALIDAD. El objetivo es contribuir a que nuestra sociedad comprenda las causas que motivan la movilidad humana para generar una cultura de solidaridad e inclusión.

Con la iniciativa "Yo soy tierra de acogida" hemos realizado actividades de movilización y sensibilización: recogida de firmas, representaciones teatrales, charlas, marchas simbólicas, y espacios de formación y diálogo. Aquí se incluye la marcha solidaria de octubre, organizada con el colegio San Ignacio de Pamplona, donde participaron 1.200 personas con una comida posterior para 400 personas.

En el marco de la campaña Tecnología Libre de Conflicto hemos continuado, a través de nuestra colaboración en redes internacionales, con el seguimiento a la normativa europea en torno a la regulación de los minerales en conflicto. Además, 80 centros educativos y grupos colaboradores han trabajado nuestros materiales educativos y han realizado acciones de movilización, como la campaña de recogida de firmas (22.000 firmas) o la de recogida de móviles (4.512 móviles reciclados).

También hay nuevas propuestas para llegar a un nuevo público, como es el caso de la colaboración con la cantante Amparo Sánchez y su sencillo "Mama África" que conecta la música con la realidad de miles de mujeres en el este de la RD Congo. Medios de comunicación de gran alcance se han interesado por la campaña y nos ha permitido llegar a un amplio espectro de la sociedad.

En Marzo celebramos en Vitoria-Gasteiz la IV Carrera solidaria por las Mujeres Valientes en la que participaron más de 400 personas, con presencia de representantes de la red Synergie de RD Congo, y de Radio Marañón de Perú.

Además, hemos mantenido nuestra comunicación periódica con nuestra base social a través de revistas, boletines electrónicos, página web, blogs, redes sociales y medios de comunicación. Hay que destacar el nuevo sitio web: una herramienta mejor articulada y más atractiva. En total, en 2016 se han logrado 398.000 visitas, una cifra jamás alcanzada anteriormente.

# COOPERACIÓN INTERNACIONAL

En 2016 hemos trabajado con más de 100 organizaciones aliadas en América Latina, África y Asia.
Las 200 iniciativas que hemos acompañado nos han permitido continuar caminando junto a más de 800.000 personas.



## AMÉRICA LATINA

### HONDURAS, GUATEMALA, EL SALVADOR, NICARAGUA, COLOMBIA, VENEZUELA Y PERÚ.

Hemos dado comienzo a 38 nuevos proyectos, que se han sumado a otros 52 iniciados en años anteriores.

Queremos resaltar la labor vinculada a las migraciones forzadas en la región latinoamericana. Hemos apoyado tanto al Servicio Jesuita para Refugiados en las dinámicas de desplazamiento y refugio en Colombia, Ecuador y Venezuela como a la Red Jesuita de Migrantes en el acompañamiento a la población migrante centroamericana.

Además, continuamos apostando por procesos que permiten que las mujeres vayan adquiriendo capacidades para el liderazgo y la defensa de sus derechos, y que las organizaciones aliadas se vayan fortaleciendo en materia de género.

En Honduras, el país más violento de Centroamérica, colaboramos con ERIC-Radio Progreso para reforzar a las organizaciones sociales ante las constantes violaciones de derechos humanos.

También hemos avanzado en educación intercultural, educación bilingüe, y cuidado y defensa de la naturaleza en la Panamazonía de la mano del Proyecto Panamazónico de la Compañía de Jesús, y de Fe y Alegría.

Por último, este año también hemos apoyado proyectos de emergencia tras el paso del huracán Matthew en Haití, y del terremoto de Ecuador.

# ÁFRICA

## REPÚBLICA DEMOCRÁTICA DEL CONGO, REPÚBLICA CENTROAFRICANA, BURUNDI, RUANDA Y CHAD.

Además de los 21 proyectos que ya venían ejecutándose, hemos iniciado 19 nuevas iniciativas, entre las que destacan procesos productivos que contribuyen a mejorar la generación de ingresos de la población, especialmente de las mujeres.

Además, mediante la campaña Tecnología Libre de Conflicto, redoblamos nuestro compromiso en el este de la República Democrática del Congo, desplegando procesos educativos para las personas desplazadas de guerra, así como con la atención específica a mujeres víctimas de la violencia a través de la organización Synergie des Femmes– SFVS.

En el marco de la campaña de Hospitalidad y junto con otras obras de la Compañía de Jesús en España, hemos prestado cobertura a personas refugiadas y desplazadas en Líbano, Marruecos y Grecia.

Y también hemos contribuido a la consolidación de Fe y Alegría en varios países, y colaborado en la realización de su congreso africano.











## ASIA

### INDIA (ESTADOS DE TAMIL NADU Y GUJERAT), NEPAL.

En el estado de Tamil Nadu, trabajamos con colectivos de mujeres altamente vulnerables como viudas o indígenas. Las propuestas están vinculadas con el fortalecimiento de organizaciones para la defensa de sus derechos. Además colaboramos con el Servicio Jesuita a Refugiados para atender a la población de Sri Lanka que aún permanece en territorio indio.

Así mismo en la Provincia de Gujarat nos esforzamos en mejorar las condiciones de la población, especialmente de la población adivasi. Las iniciativas abarcan procesos de liderazgo, fortalecimiento de organizaciones, y proyectos productivos y educativos, entre otros.

## COMPARTE

Continuamos acompañando la labor de la red COMPARTE en su apuesta por construir alternativas económicas, y hemos coorganizado su seminario anual que tuvo lugar en Andahuaylillas, Perú. En esta red participan 15 entidades del sector social de la conferencia de Provinciales de América Latina y ALBOAN.  También colaboran 6 universidades de España, México y Colombia.



# INFORME ECONÓMICO 2016

El ejercicio 2016 ha finalizado con un incremento del 6% en el volumen de actividad de ALBOAN con respecto a 2015, alcanzando los 9.575.682 €. Sin embargo, el resultado ha presentado un déficit de 31.500 euros motivado por el compromiso de ALBOAN con los procesos de desarrollo de nuestras organizaciones aliadas que tienen dificultades para encontrar financiación por otras vías.

Las fuentes de financiación pública se han incrementado en un 17% en comparación con el ejercicio 2015, debido a los buenos resultados en la aprobación de proyectos de convocatorias públicas.

Las fuentes de financiación privada prácticamente se mantienen en relación a 2015 gracias al apoyo de nuestros socios, donantes e instituciones y empresas. Queremos agradecer especialmente el compromiso de la base social de ALBOAN, cuyas cuotas periódicas representan el 30% del total de las donaciones y nos permiten dar mayor estabilidad al apoyo de nuestras iniciativas. Asimismo queremos reconocer a todas aquellas personas que con sus legados solidarios nos permiten contribuir a que las poblaciones más vulnerables tengan una vida digna.

Con respecto a la distribución del gasto, el incremento en los ingresos se ha traducido en un aumento del envío de fondos a nuestros proyectos de cooperación internacional alcanzando los 7 millones de euros enviados. Nuestra apuesta por la construcción de ciudadanía global a través de propuestas de sensibilización, formación, investigación e incidencia en nuestro entorno se mantiene en el 12% y el esfuerzo en la contención del gasto destinado a labores de comunicación y a tareas administrativas se refleja en el mantenimiento de su peso relativo sobre el total del presupuesto en torno al 10%.



**Gastos por áreas 2016**

- Cooperación Internacional 78%
- Acción Pública y Participación 12%
- Comunicación 5%
- Gestión 5%

**Gastos por sectores 2016**

- Educación 32%
- Desarrollo socio-económico: 14%
- Fortalecimiento de la sociedad civil: 30%
- Ayuda humanitaria: 16%
- Otros: 8%





**Gastos por zona geográfica 2016**

- África 22%
- Asia 27%
- Sudamérica 30%
- Centroamérica 21%

## EVOLUCIÓN de las APORTACIONES

| | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|
| **PRIVADAS** | 4.955.462 | 5.001.937 | 5.142.652 |
| **PÚBLICAS** | 4.149.878 | 3.567.609 | 2.965.197 |
| **Otros Ingresos** | 470.342 | 432.918 | 415.851 |
| **TOTAL Ingresos** | **9.575.682** | **9.002.464** | **8.523.700** |

Nuestras cuentas han sido sometidas a auditoría externa por Diecinueve Auditores SLP. Durante 2016 continúa vigente el "Sello de transparencia y buen gobierno" promovido por la Coordinadora de ONGD. Esta herramienta recoge las particularidades de nuestro sector para analizar las actividades y funcionamiento y está realizada por firmas de auditoría independientes.

ALBOAN

ONG promovida por los Jesuitas - Jesuitek sortu era bultzatutako GKE

www.alboan.org

# 2016 TXOSTENA





# OSPAKIZUNAK ETA ERRONKAK

Zalantzarik gabe, 2016an gertatutakoa adierazteko tweet egokia hurrengo hau izango litzateke: “ospakizunen urtea, etorkizunerantz aurrera egiteko emaitza asko eta garrantzizko erronkak izanda”.

Urte honi izaera berezia eman dio gure 20. urteurrenaren ospakizunak. Milaka pertsonak, taldek eta erakundek gure gonbidapenari baietza eman zioten ALBOANen bizitza eta historia ospatzeko. Urteurren honek berretsi du gure erakundearen balioa, baita, Euskadin eta Nafarroan finkatuta, Jesusen Lagundiaren nazioarteko lankidetzarako erakunde gisa sendotu ere.

Emaitzak asko izan dira. ALBOAN eta bere familia asko handitu dira. Gure prestakuntza-jarduerak 6.200 pertsonari heldu zaizkie, 200 ikastetxetan gure hezkuntza-materialak erabili dira (1.100 hezitzaile-ren konpromisoaren bitartez), eta Hegoaldeko erakunde aliatuen 209 proiektutan lagundu dugu. ALBOAN familia hazi da: 108 enpresa kola-boratzaile, 6.500 bazkide eta emaile eta 36 gazte-talde. Gure ekintzen kopuruak handitzen jarraitzen du eta 9,5 milioi eurora iritsi da, aurreko urteetako krisialditik neurri baten aterata. Azkenik, sare sozialetan izan dugun presentzia bikoiztu egin da (facebooken eta twitteren 20.000 jarraitzaile inguru ditugu), baita berritutako webgunean bisitarien kopurua ere (400.000 bisita hiruhilekoan).

“Gatazkarik Gabeko Teknologia” kanpainak funtsezko bi laguntza izan ditu, gure inguruan gehiago zabaldu ahal izateko. Alde batetik, “Salvados” saioak agerian jarri zuen emakume kongoarrek pairatzen duten sexu indarkeria, herrialdeko baliabide naturalen espoliazioaren testuinguruan. Bestetik, Amparo Sánchez abeslariaren laguntza irmoa izan dugu, zeren eta, Kongoko EDn jarduten duten erakunde aliatuen lana berak zuzenean ezagutu ondoren,  “Mama África” abestia sortu baitzuen. Laguntza horiei esker, baita erakundeek emandakoari ere, egoera hori hobeto ezagutzera eman ahal izan dugu eta, horren

ondorioz, legedi europarra lortu da, neurri batean kontrolatzeko gatazkako eskualdeetatik datozen eta enpresa europarrek erabiltzen dituzten mineralen trazabilitatea.

Bestalde, gure hezkuntza-proposamena sendotu egin da kulturartekotasun eta hezkidetzaren gaiak sartzean, horrela arlo garrantzitsuak landu ahal baititugu, herritartasun globala, aktiboa eta arduratsua, baita hospitalitatea eta generoaren ekitatea ere, eraikitzeko.

Lortutako emaitzek animatu eta bultzatzen gaituzte bizitza duinaren alde lan egiten jarraitzera, baina, aldi berean, etorkizunerako erronka garrantzitsuak planteatzen dizkigute. Alde batetik, gure aurrekontuaren igoera ez da nahikoa izan Hegoaldean babestu nahi ditugun proiektuak mantendu ahal izateko, bereziki Latinoamerikan. Nola ikusarazi Latinoamerikan aurrera ateratzeko borrokatzen diren pertsonen beharrak? Eta Mexiko zeharkatzen duten pertsonen beharrak, bizitza arriskuan jarrita eta Erdialdeko Amerikako indarkeriatik ihes eginda?

Bestetik, 2016an lortutako atxikimendu-maila altuak eskatzen digu lan serioa mantentzeko konpromisoa, baita gure ausardia ere, herritartasun globala eta aktiboa begirada kritikoz eraikitzeko.

Lan hori guztia ALBOAN taldearen konpromiso iraunkor eta eskuzabalari esker garatu da. Bertan, 200 pertsona boluntariok eta 44 kontratadunek lan egiten dute. Urrunera heltzen gara familian!

Mila esker!

# NON GAUDE?

**Bilbo**
Aita Lojendio, 2 - 2
48008
Tel: 944 151 135

**Gasteiz**
Monseñor Estenaga, 1
01002
Tel: 945 202 676

**Iruñea**
Avenida Barañain, 2
31011
Tel: 948 231 302

**Donostia**
Andía, 3
20004
Tel: 943 275 173

www.alboan.org
alboan@alboan.org
facebook.com/alboan
@ALBOANongd

diseinua by muxotepotolobat



# EKINTZA PUBLIKOA ETA PARTE-HARTZEA



## EDUCACIÓN FORMAL

200 ikastetxek parte hartu dute gure hezkuntza-proposamenen batean, inplikazio-maila ezberdinetan, eta bertan 1.142 hezitzailek proposamen horietako batzuk erabili dituzte.

Durangoko eta Donostiako jesuiten ikastetxeekin batera, Kulturarteko Hezkuntzaren proposamenerako materialak egin dira, proiektuen bidezko metodologian oinarritutakoak, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Horrela sendotu nahi izan dugu hezkuntza berrikuntzan hartutako lanaren norabidea. Hezkidetzaren eremuan, ildo berri bati eman diogu hasiera. Abian jarri da auto-diagnostikoaren prozesua 7 ikastetxetan, berdintasunerako hezkuntza ekimenak bultzatuko dituzten ekintza-planak gauzatzeko asmoz.

Apirilean, EDUKALBOAN elkartasunaren aldeko irakasleen sareak topaketa burutu zuen, eta, bertan, gizarte aldaketarekin konpromisoa duten 50 partaide baino gehiago bildu ziren.

Entreculturas, Intered eta Oxfam Intermón erakundeekin batera, Hezkuntza Eraldatzailearen eta Herritartasun Globalaren Aldeko Mugimendua bultzatu dugu, eta hor 48 ikastetxe inplikatu dira proposamen ezberdinetan. Azaroan, estatu mailako Mugimenduaren I. Topaketa garatu zen, eta hara EDUKALBOAN sarearen ordezkari ugari bertaratu ziren.

Bilbon, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza irakasgaia eman dugu Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntza graduan.

“Hezkuntzak babesten gaitu, babes dezagun bere finantzaketa” izan zen Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren urteko edizioaren goiburua. ALBOANek, Euskadin eta Nafarroan, 50 ikastetxe eta hezkuntza ez formaleko zenbait talde mobiliza-





tu ditu. Horrez gain, Nafarroako eta Nikaraguako Fe y Alegría ikastetxeen arteko trukeak jarraitzen du.

“Ankur” esperientzia berriro egin dugu. Proposamen pedagogikoa da, Fedearen eta Justiziaren arlokoa, eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat eratuta dago. Proposamen horren bidez, ikasleek Indiako dalit eta adivasi komunitateen errealitatean murgiltzeko aukera dute. Programa Nafarroan gauzatzen da, Xabierko Santutegian, jesuita-komunitatearekin eta Jesusen Lagundiaren hezkuntza sektorearekin lankidetzan. 2016ko irailaren eta 2017ko otsailaren artean, 972 gaztek hartu dute parte, baita 18 ikastetxetako 58 hezitzailek ere.



## HEZKUNTZA EZ FORMALA

Nazioarteko boluntariotzako esperientzien aldeko apustua egiten jarraitzen dugu. VOLPA eta Elkartopatzen programen bitartez, 17 pertsonan aritu dira Hegoaldean nazioarteko boluntariotzako proiektuetan.

Apirilean, Urduñan, Bizkaian, ALBOANen Elkartasunaren aldeko Gazte Sarearen III. Topaketa egin zen, “Gatazkarik Gabeko Teknologia” kanpainaren inguruan. Bertan, 61 neska-mutilek hartu zuten parte, baita Honduraseko lau gaztek ere, lurraldearen defentsan aritzen diren tokiko taldeetako partaideek.

Elkartasunaren eremuko prestakuntzan, “Munduko Txokoa” Euskadin, eta “Una ventana al mundo” Iruñean, 13 jarduera burutu ditugu, 567 pertsonak parte hartu dutelarik. Horrez gain, 6.200 pertsonari eskaini diegu prestakuntza, heziketa ekintza ezberdinak ahalbidetuz: ikastaroak (online eta aurrez aurrekoak), tailerrak, irakasle eta talde kolaboratzaileentzako prestakuntza bereziak.

Kidenda Bidezko Merkataritzako erakundeko kide garen aldetik, Donostia eta Iruñeko taldeei lagundu diegu, eta Gasteizeko Bide Bidean bidezko merkataritzako dendan parte hartu dugu.

Bestalde, nazioarteko mintegiak antolatu ditugu, ALBOANek landutako gaiak azaltzeko: Aukera Ekonomikoak; Mugetatik haratago (Kulturartekotasuna); Desberdintasuna Eztabaidan; Baliabide Naturalak eta Derrigorrezko Lekualdatzeak; Kazetaritza konprometitua; Emakumeak, Meatzaritza eta Gatazka.



Askotariko gaiak agertu dira gure erakusketetan: pertsona errefuxiatuak eta migratzaileak, India, Gatazkarik Gabeko Teknologia eta boluntariotza. Oso harrera ona izan dute jarritako 29 erakusketek.

## KANPAINAK, MOBILIZAZIOAK ETA KOMUNIKAZIO HEZITZAILEA

Historiako krisialdirik larrienetakoa da gaur eguneko errefuxiatuena eta migratzaileena. Mundu osoan, 60 milioi pertsonak euren lurraldeak utzi behar dituzte. Europara ere jende ugari heltzen da Mediterraneoa zeharkatuta. ALBOAN, Jesusen Lagundiaren parte den aldetik, HOSPITALIDAD kanpaina abian jartzeko inplikatu da. Helburua pertsonen mugimenduen arrazoiak ulertaraztea da, elkartasunaren eta inklusioaren kultura sortzeko asmoz.

“Harrera lurra naiz” ekimenaren bidez, mobilizazio eta sentsibilizazio ekintzak garatu ditugu: sinadurak bildu, antzezlanak, hitzaldiak, ibilaldi sinbolikoak, baita prestakuntza eta elkarrizketarako guneak zabaldu ere. Horren barne, urrian egindako ibilaldia dago, Iruñeko San Ignacio ikastetxeak antolatutakoa. Bertan 1.200 pertsonak hartu zuten parte, eta, ondoren, 400 pertsonentzako bazkaria egin zen.

Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren eremuan, nazioarteko sareetan parte hartuz, gatazka mineralak arautzeko legedi europarraren jarraipena egin dugu. Horrez gain, 80 ikastetxetan eta talde kolaboratzaileetan gure hezkuntza-materialak landu, eta mobilizazio-ekintzak burutu dituzte, adibidez sinaduren bilketa (22.000 sinadura) edo mugikorrena (4.512 mugikor birziklatuta).

Halaber, proposamen berriak ere badaude publiko berriarenganа heltzeko, hala nola Amparo Sánchez abeslariaren lankidetza. Bere “Mama África” abestiaren musika Kongoko EDko ekialdean bizi diren milaka emakumeren errealitatearekin konektatzen da, eta herritar askorengana heltzeko aukera eman digu.

Martxoan, Emakume Ausarten IV. Lasterketa Solidarioa egin genuen Gasteizen. Parte hartu zuten pertsonak 400 baino gehiago izan ziren, eta Kongoko EDko Synergie sareko ordezkariak eta Peruko Radio Marañón delakoak ere bertaratu ziren.

Horrez gain, gure oinarri sozialarekin aldizkako komunikazioa mantendu dugu, horretarako askotariko tresnak erabiliz: aldizkariak, buletin elektronikoak, webgunea, blogak, sare sozialak eta komunikabideak. Nabarmentzekoa da webgune berria: hobeto egituratutako tresna da eta erakargarria. Guztira, 2016an, 398.000 bisita lortu dira, lehenago inoiz lortu ez den kopurua.

# NAZIOARTEKO LANKIDETZA

2016an, Latinoamerika, Afrika eta Asiako 100 erakunde aliaturekin baino gehiagorekin aritu gara lanean. Lagundu ditugun 200 ekimenek ahalbidetu dute 800.000 baino gehiagoren ondoan aurrera egiten jarraitzea.



## LATINOAMERIKA

### HONDURAS, GUATEMALA, EL SALVADOR, NIKARAGUA, KOLONBIA, VENEZUELA ETA PERU.

Hasiera eman diegu 38 proiektu berririri; beraz, aurreko urteetan hasitako beste 52 proiektuei gehitu zaizkie.

Latinoamerikan, behartutako migrazioekin loturiko lana nabarmendu nahi dugu. Lagundu diegu, bai Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuari, Kolonbia, Ekuador eta Venezuelako lekualdatze eta babes jarduеretan, bai Migratzaileen Jesuiten Sareari, Erdialdeko Amerikako populazio migratzaileari laguntzeko zereginean.

Halaber, emakumeen alde egiten jarraitu dugu, beharrezkoak diren prozesuak ahalbidetuz lidergorako eta beren eskubideen defentsarako gaitasunak har ditzaten, eta generoaren arloan erakunde aliatuak sendotu daitezen.

Hondurasen, Erdialdeko Amerikan herrialde bortitzenean, elkarlanean aritzen gara ERIC-Radio Progresorekin, gizarte erakundeak sendotzeko giza eskubideak etengabe urratzearen aurrean.

Aurrerapenak ere eman ditugu kulturarteko hezkuntzan, heziketa elebidunean, eta naturari dagokion arduran eta defentsan Panamazonian, Fe y Alegría erakundearen eta Jesusen Lagundiaren Proiektu Panamazonikoaren eskutik.

Azkenik, urte honetan ere larrialdi-proiektuetan lagundu dugu, bai Haitin gertatutako Matthew urakanaren ondorioz, bai Ekuadorreko lurrikararen ostean.

# AFRIKA

## KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA, AFRIKA ERDIKO ERREPUBLIKA, BURUNDI, RUANDA ETA TXAD.

Guztira, 19 dira proiektu berriak, lehendik garatzen ari diren 21 proiektuez gain.

Proiektu produktiboei emandako laguntza azpimarratu nahi dugu, horrela herritarren diru-sarrerak sortzeak hobera egin dezake, bereziki emakumeen kasuan.

Halaber, Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren bitartez, Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean areagotu egin dugu gure konpromisoa, gerragatik desplazatuak izan diren pertsonentzat hezkuntza-prozesuak zabaltzeko, eta baita indarkeriaren emakume biktimei berariazko arreta emateko Synergie des Femmes-SFVS erakundearen bidez.

Hospitalidad kanpainaren eremuan, eta Espainiako Jesusen Lagundiaren beste obrekin batera, laguntza eman diegu Libanon, Marokon eta Grezian dauden pertsona errefuxiatu eta desplazatuei.

Halaber, Fe y Alegría erakundea sendotzen lagundu dugu hainbat herrialdetan, baita Afrikako biltzarrean parte hartu ere.











## ASIA

### INDIA (TAMIL NADU ETA GUJERAT ESTATUAK), NEPAL.

Tamil Nadu estatuan oso zaurgarriak diren emakume taldeekin –alargunak edota indigenak, esate baterako- egiten dugu lan. Beren eskubideak defenda ditzaten erakundeak indartzeko ahaleginean gabiltza. Bestalde, Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitaren bat egiten dugu oraindik ere Indian dagoen Sri Lankako populazioa artatzeko.

Halaber, Gujarat Probintzian populazioaren bizi-baldintzak hobetzen saiatzen gara, batez ere Adivasi herrienak. Aitzindaritza prozesuak, erakundeak indartzeko proiektuak, eta hezkuntza eta ekoizpen egitasmoak sustatzen ditugu.

## COMPARTE

Aukera ekonomikoak eraikitzeko apustuan, COMPARTE sarearen lanari laguntzen jarraitzen dugu, eta Andahuaylillas-en, Perun, bere urteko mintegia antolatu dugu. Sare horretan, Latinoamerikako Probintzialen Konferentziaren Gizarte Esparruko 15 erakundek eta ALBOANek hartzen dute parte. Halaber, elkarlanean ari dira Espainia, Mexiko eta Kolonbiako 6 unibertsitate.



# TXOSTEN EKONOMIKOA 2016

2016 ekitaldiaren amaieran, ALBOANen jardun kopurua %6 igo da, 2015koa kontuan hartuta, eta 9.575.682 eurora iritsi da. Baina emaitzak 31.500 euroko defizita agertu du. Horren arrazoia izan da ALBOANek erakunde aliatuen garapen-prozesuetan hartutako konpromisoa, beste baliabide batzuen bitartez finantzaketarako zailtasunak izaten baitituzte.

Finantzaketa publikoaren iturriak %17 igo dira, 2015 ekitaldiaren aldean, deialdi publikoetan proiektuen onarpenak emaitza onak jaso baititu.

Finantzaketa pribatuaren iturriak mantendu egin dira, 2015 ekitaldiaren aldean, gure bazkide eta emaileen laguntzari esker, baita erakunde eta enpresetatik jasotakoari esker ere. Bereziki eman nahi dizkiogu eskerrak ALBOANen oinarri sozialari, aldizkako kuotak dohaintza guztien %30 baitira. Horrela, gure ekimenei egonkortasun handiagoa eman ahal diegu. Halaber, gure esker ona erakutsi nahi diegu legatu solidarioak egin dituzten pertsonei, horrela lan egin ahal baitugu populazio ahulagoek bizitza duinagoa izan dezaten.

Gastuen banaketari dagokionez, diru-sarreren igoerak eragina izan du nazioarteko lankidetza-proiektuetara laguntza ekonomikoa helarazteko: 7 milioi euro bidali dira. Herritartasun globalaren aldeko apustua mantendu egin da (%12), gure inguruan sentsibilizazio, prestakuntza, ikerketa eta eragin proposamenen bidez. Komunikazio- eta administrazio-lanetako gastuari eusteko ahaleginak eragina izan du atal horri dagokion kopuruan: aurrekontu osoaren % 10 inguruan.



**Gastuak arloen arabera 2016**

- Nazioarteko lankidetza %78
- Ekintza publikoa eta parte-hartzea %12
- Komunikazioa %5
- Kudeaketa %5



**Gastuak sektoreen arabera 2016**

- Hezkuntza %32
- Garapen sozioekonomikoa %14
- Gizarte zibilaren sendotzea %30
- Giza laguntza %16
- Beste batzuk %8



**Gastuak eremu geografikoen arabera 2016**

- Afrika %22
- Asia %27
- Hego Amerika %30
- Erdialdeko Amerika %21

## EKARPENEN BILAKAERA

| | 2016 | 2015 | 2014 |
|---|---|---|---|
| **PRIBATUAK** | 4.955.462 | 5.001.937 | 5.142.652 |
| **PUBLIKOAK** | 4.149.878 | 3.567.609 | 2.965.197 |
| **Beste diru-sarrera batzuk** | 470.342 | 432.918 | 415.851 |
| **Diru-Sarreren bilakaera** | **9.575.682** | **9.002.464** | **8.523.700** |

TRANSPARENCIA Y BUEN GOBIERNO
ONGD evaluada
Vigente hasta 31/12/2018
Coordinadora de ONGD-España

Gure kontuek kanpo-ikuskaritzak izan dituzte Diecinueve Auditores SLP enpresaren eskutik. GGKEen Koordinakundeak sustatutako "Gardentasunaren eta gobernu onaren zigiluak" indarrean jarraitzen du 2015ean. Tresna horrek gure sektoreko berezitasunak hartzen ditu aintzat, jarduerak eta funtzionamendua aztertzeko, eta ikuskaritza-enpresa independenteek egiten dute.